

XXX/2023 Dekretua, XXXXXaren XX(e)koa, Batxilergoaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunak (2000) 14. Artikuluan ezartzen du pertsona guztiek dutela hezkuntzarako eskubidea –barne dela derrigorrezko hezkuntza, prestakuntza eta etengabeko ikaskuntza inklusiboa eta kalitatekoa doan jasotzeko ahalmena–, beren bizitza-proiektuan arrakasta lortzeko gaitasunak eskuratu eta mantentzeko gizartean bete-betean parte hartzeko.

Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legeak (otsailaren 18ko 3/2005 Legea) ezartzen du haur eta nerabe guztiek dutela hezkuntzarako eta irakaskuntzarako eskubidea. Bestalde, ekainaren 4ko 8/2021 Legeak (Haurrak eta nerabeak indarkeriatik modu integralean babesteko) adierazten du funtsezkoa dela haurren eta nerabeen giza duintasuna eta integritate fisikoa eta psikologikoa errespetatzen direla ziurtatzea eta errespetatzea daitezela sustatzea, indarkeria-mota ororen prebentzioaren bidez. Familia eta eskola dira ikasleen hezkuntza-prestakuntzaren funtsezko bermatzaileak.

Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak (Hezkuntzaren kalitatea hobetzekoa, maiatzaren 3ko 2/2006 Legea (Hezkuntzarena) aldatzen duena) curriculumaren kontzeptuari buruzko aldaketak sartu ditu. Bestalde, eskumen-banaketa berria izan da Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean, eta horrek funtsean aldatzen du Batxilergoko curriculuma zehazteko eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko irailaren 6ko 127/2016 Dekretuan (2016ko irailaren 23ko EHAA) ezarritakoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatuaren 16. artikulua irakaskuntzaren gaineko eskumena esleitzen dio Euskal Autonomia Erkidegoari, irakaskuntzaren osotasunean, maila eta gradu guztietan eta modalitate eta espezialitate guztietan. Eskumen horretaz baliatuta, Hezkuntza Sailak Batxilergoari dagokion curriculuma onartu du Euskal Autonomia Erkidegoan.

Euskararen Legea (10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilpena arautzen duena) da euskal ikasle guztiak euskaraz zein gaztelaniaz behar adinako komunikazio-kompetentziarekin moldatzeko ahaldunduko dituen kompetentzia eleaniztunean aurrera egiteko tresna. Era berean, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen (otsailaren 19ko 1/1993 Legea) helburu hau dago jasota: derrigorrezko irakaskuntza-aldia amaitzean bi hizkuntza ofizialen ezagutza praktikoa baldintza-berdintasunean bermatzea, euskararen erabilera bultzatuz eta, horrela, euskararen erabilera normalizatzen lagunduz, euskara hezkuntza-komunitatearen jardueran guztietan ohiko adierazpide gisa erabil dadin.

Dekretu honen bidez curriculuma zehaztearen helburua da euskal hezkuntza-sisteman lortutako hezkuntza-mailak hobetzea eta XXI. mendeko erronka handiei erantzuneko dieten hezkuntza-xede berriak bultzatzea. Hori guztia 2030erako Garapen Iraunkorrerako Helburuekin (UNESCO) bat etorritik, Euskadi Basque Country 2030 Agendaren testuinguruan, eta, zehazki, 4. helburuarekin (“Guztionezko kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea”) eta etengabeko ikaskuntzarako funtsezko kompetentzietan buruzkoa den 2018ko maiatzaren 22ko Europar Batasuneko Kontseiluaren Gomendioarekin bat.

Dekretu hau idazteko, funtsezkoak izan dira Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatu den hezkuntza-ibilbidea; azken urteetan garatu diren proiektu inklusiboen inplementazioa; euskara sistemaren ardatz nagusi gisa duen esparru eleaniztun baten aldeko apustua; eta, hezkuntza-komunitateak partekatu eta bultzatu duen kultura pedagogikoa. Era berean, kontuan hartu dira gure ingurunean gizarte- eta hezkuntza-erronkak eta hezkuntza-sistemaren etengabeko hobekuntza.

Horretarako, Batxilergoa amaitzean, ikasleek hezkuntza-xedeak erdietsita izan behar dituzte eta bizitzaren esparru eta egoeretan moldatzen jakin behar dute. Horrekin bat etorritik, dekretu berriak berriz formulatzen du testu honek ordeztu behar duen 127/2016 Dekretuan jasotako ikasleen irteera-profilaren kontzeptua. Izan ere, pertsona-eredua deskribatzen du, eta ikasleek Batxilergoa amaitzean erdietsi behar dituzten funtsezko konpetentzien lorpena ezartzen du. Aurreko dekretuan jasotako zeharkako eta diziplinako konpetentzien arteko bereizketa gainditu egin da eta orain funtsezko konpetentzietara eta konpetentzia espezifikoetara daude bideratuta, Europar Batasuneko Kontseiluaren Gomendioari (2018) jarraituz.

Batxilergoko Irteera-profila deskriptore operatiboaren bidez definitzen da. Ikasle guztiek etapa amaitzean deskriptore horiek erdietsi dituztela ziurtatu behar da.

XXI. mendeko "ezagutzaren gizarteak" aldaketa sakonak eskatzen ditu eta, aldaketa horiek berekin dakartzate eskari kognitibo berriak eta ikasleek eskuratu beharreko konpetentzia berriak. Hori dela eta, irakasteko modu berriak eta eskolan elkarri eragiteko modu berriak behar dira. Ikasleen aniztasunak paradigma-aldaketa eskatzen du, egitura malguagoak eta irakaskuntzan kolaboratzeko prozedurak izateko, eta irakasleen arteko eta ikastetxeen arteko sareak sortzeko.

Aldaketa horiek heldutasun intelektuala eta giza heldutasuna, ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak eman behar dizkiete ikasleei, bizitza aktiboan gaitasunarekin eta erantzukizunarekin sartu eta aukera izan dezaten arrakasta pertsonala eta soziala lortzeko. Prestakuntza- eta lanbide-etorkizunari aurre egiteko eta goi-mailako hezkuntzan sartzeko trebakuntza izateko ezinbesteko konpetentziak eskuratu beharko dira etapa horretan. Halaber, oinarri sendoak ezarri behar dira honako hauek bermatzeko: bizitza osoko ikaskuntzaren jarraitutasuna; norberaren erabakien gaineko parte-hartze aktibo, kritiko eta arduratsuaren bidez integratzea, munduaren beste ikuspegi batzuk errespetatuta eta pertsonak zaintzera bideratuta.

Ingurumen-krisiak, eta krisi humanitarioak, sanitarioak eta balioenak, inoiz baino gehiago eskatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren ikasleek enpatia, autonomia, erresilientzia, espiritu kooperatibo eta kritikoa, konpromiso soziala eta ingurumenarekiko konpromisoa garatzea, eta gero eta globalizatuagoa, interdependenteagoa eta zalantzarazkoagoa den eta Laugarren Industria Iraultzan (*Industry 4.0*) eta erronka sozial handietan murgilduta dagoen munduan bizitzeko funtsezko gaitasunak izatea.

Garrantzizkoa da kultura bakoitzak behar horiei eskaintzen dizkien erantzunak ezagutzea, etnozentrismoaren arriskuak saihesteko eta kultura guztien ekarpenak baloratzeko edo aintzat hartzeko, kultura guztien arteko errespetua eta elkarriketa bultzatuko duten kulturarteko hezkuntza-planteamenduen bidez. Era berean, garrantzizkoa da aniztasun afektibo-sexuala eta kulturala onartzea, sexu-orientazioaren, identitatearen edo genero-adierazpenaren arabera esterotipo eta rol guztiak alde batera utzita.

Hezkuntza-eredu pedagogikoaren marko berriak Heziberri 2020 ereduaren du jatorria. Heziberri 2020ren zeharkako eta diziplinako konpetentziak funtsezko konpetentzietara eta konpetentzia espezifikoetara bideratzen dira, Europar Batasuneko Kontseiluaren gomendioari (2018) jarraituz.

Gure hezkuntza-ereduaren hobekuntzan aurrera egiteko, Dekretu hau honako ildo estrategiko hauen barruan sartzeko da, eta ildo horiek izango dira oinarritzko erreferentziak eredu horretako elementuen garapenean:

– Ikasleak dira euskal hezkuntza-sistemaren giltzarria, eta ikasle bakoitzak

Batxilergoko irteera-profila lortzea da hezkuntza-sistemaren helburua. Ikasle guztiak XXI. mendeko erronkei maila pertsonalean, sozialean eta profesionalean arrakastaz aurre egiteko moduan daudela ziurtatu behar da. Hori guztia testuinguru inklusiboan, segurtasunean eta ongizate emozionalean.

– Ikastetxea da hezkuntza-eraldaketarako ardatza. Erakunde ahaldundua izan behar du, lidergo banatua eta hezkuntza-komunitate osoaren ikaskuntzan oinarritutako berrikuntza eta etengabeko hobekuntza sustatuko dituena. Horretarako, Hezkuntza Sailak ikastetxeen autonomia sustatuko du.

– Irakasleek rol aktiboa izan behar dute ikaskuntza-prozesuan; haien lidergoa finkatuko da ematen duten jakintzagaiaren ezagutza eta aplikatzen dituzten trebetasun didaktiko eta metodologiko koherenteetan. Gainera, gidari, orientatzaile edo bultzatzaile gisa jardun behar dute ikaskuntza partekatuko edo ikaskuntza autonomoko jardueretan, bai eta talde-lanera edo kolaborazio-lanera edo proiektu bidezko lanera bideratutako jardueretan, ikasleen garapen integrala lagunduz. Tutorearen rola etapa guztietan indartzen da, ikasleen bideratzaile eta gidari gisa, ikasle guztien bizikidetzak ona eta arrakasta lortzeko begira.

- Konpetentzia-curriculuma ikaskuntza sakon eta funtzional jakin baterantz bideratzen da: ikasten dena zenbait testuingurutan erabil daiteke, denboran zehar irauten du eta egoera errealean problemak ebazteko aukera ematen du.

– Ebaluazio hezitzailea, ikasteko prozesuak eta konpetentzien garapenean izandako aurrerapen-mailak ezagutzeko eta baloratzeko informazioa bildu eta analizatzen duen prozesu jarrai eta sistematiko gisa.

– Arreta berezia etapen arteko trantsizioan, ikasleek aukera izan dezaten etapa bakoitzeko erronketara egokitzeko.

– Hizkuntza-hezkuntza eleaniztunaren kalitatea funtsezkoa da, errealitatea ulertzeko, pentsamendua adierazteko, arrazoitzeko, ezagutza transmititzeko eta mundua ikusi eta ulertzeko eta besteekin harremanetan izateko beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak ematen baititu. Gainera, beste arlo batzuen zerbitzura egon behar du.

– Curriculumerako sarbidearen unibertsaltasuna. Benetako integraziorako, aukera-berdintasunerako, erabateko partaidetzarako eta hezkuntzaren arrakastarako bidea finkatuko du. Horretarako, ikaskuntzarako garapen unibertsala hartuko da aintzat ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan.

- Hezkidetzak funtsezkoa da pertsonen garapena bultzatzeko, sexuaren, sexu-orientazioaren, identitatearen edo genero-adierazpenaren arabera estereotipoak eta rolak alde batera utzita. Hezkidetzak hezkuntza-sistemaren ildo estrategikoa izan behar du, eta ikastetxeen antolaketa pedagogikoa orientatzeko irizpidea.

– Arreta berezia eskaintzea ikasleen ongizate emozionalari eta hezkuntza-komunitate osoaren zainketa. Arreta horretan sartzen dira ondo eta harmonian sentitzearen esperientzia subjektiboa eta zailtasunei aurre egiteak eta modu positiboan gaitzitzeak sortzen duen gogobetetasun-esperientzia pertsonala. Ongizate emozionala beharrezkoa da ingurumen- eskaerei eta -egoerei (ikasuntza barne) aurre egiteko edo horietara egokitzeko. Curriculuma ongizate emozionalean lagundu behar du.

Hori guztia aintzat hartuta, Euskadiko Eskola Kontseiluari entzun ondoren, eta Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, Hezkuntzako sailburuak

proposatuta, Gobernu Kontseiluak 20XXko XXXXXXren XXan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1.– artikulua. Xedea eta aplikazio-esparrua.

1.– Dekretu honen xedea da Batxilergoko etaparen curriculum propioa ezartzea eta haren ezarpena, ebaluazioa eta garapena arautzea estatuko oinarrizko legerian Batxilergoko gutxieneko irakaskuntzen eta antolamenduaren inguruan ezarritakoa alde batera utzi gabe.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoan irakaskuntza horiek ematen dituzten ikastetxe guztietan izango da aplikatzekoa.

2.– artikulua. Definizioak.

Honela ulertu beharko da:

a) *Helburuak*: ikasleek etaparen amaieran erdiestea espero diren lorpenak, funtsezko kompetentziak eskuratzearekin lotuta daudenak.

b) *Irteera-profila*: ikasle guztiek etapa amaitzean erdietsi behar duten kompetentzien garapen-maila, zeinak aukera emango baitie beren bizitza-proiektua arrakastaz garatzeko eta bizitzan zehar funtsezko kompetentzien garapenean aurrera egiten jarraitzeko.

c) *Funtsezko kompetentziak*: ikasleek arrakastaz aurrera egin ahal izateko eta beren bizitzan zehar erronka eta desafio nagusiei aurre egin ahal izateko ezinbestekotzat jotzen diren jardunak. Pertsona guztiek beren errealizazio eta garapen pertsonalerako behar dituztenak dira, bai eta herritartasun aktiboa, gizarteratzea eta enplegua sustatzeko behar direnak ere.

d) *Kompetentzia espezifikoak*: ikasleek eremu bakoitzeko oinarrizko jakintzak eskatzen dituzten jardueretan edo egoeretan garatu ahal izan behar dituzten eginkizunak dira. Kompetentzia espezifikoak lotura- eta zehaztapen-elementu bat dira, alde batetik, funtsezko kompetentziekin, eta, bestetik, eremuetako oinarrizko jakintzekin eta ebaluazio-irizpideekin.

e) *Ebaluazio-irizpideak*: ikasteko prozesuaren une jakin batean, arlo edo jakintzagai bakoitzaren kompetentzia espezifikoetan aipatutako jardueretan edo egoeretan ikasleengan espero diren jardun-mailak adierazten dituzten erreferenteak.

f) *Oinarrizko jakintzak*: pertsona batek menderatu, artikulatu eta mobilizatu behar dituen arlo, jakintzagai edo eremuen berezko ezagutza, trebetasun eta jarrerak, eta, horiekin batera, kompetentzia espezifikoetan definitutako gaitasunak, zeinek ahalbidetuko baitiote problemak ebaztea edo egoera jakin batzuetan erronkei aurre egitea. Curriculum-proposamen honetan, oinarrizko jakintza horiek hautatzen dira kompetentzia espezifikoak eskuratzeko eta garatzeko egiten duten ekarpenaren arabera, nahiz eta diziplina-logikak eduki horiek hobeto antolatzen eta aurkezten laguntzen duen.

g) *Ebaluazio hezitzailea*: irakasteko eta ikasteko prozesua ebaluatzeko modalitate bat da, izaera arautzailea duena; ikasleen zailtasunak eta aurrerapenak

hautematea du xede, irakasleak prozesu didaktikoa ikasleen beharretara egokitzeko aukera izan dezan.

h) *Eremua*: curriculumaren antolaketa globalizatua eta diziplinartekoa, zenbait diziplina elkarren artean erlazionatzen dituena, eta jakintzagaien edo arloen atalen batura baino gehiago dena. Eremuak bertan sartutako arloei edo jakintzagaiei dagozkien konpetentzia espezifikokoak, ebaluazio-irizpideak eta oinarritzko jakintzak hartzen ditu barne.

i) *Ikas-egoerak*: ikasleek funtsezko konpetentziekin eta konpetentzia espezifikoekin lotzen diren jarduerak garatzea eskatzen duten agertokiak eta jarduerak, konpetentzia horiek eskuratzen eta garatzen laguntzen dutenak. Ikas-egoeretatik abiatuta egindako lanak edozein jakintzagai edo eremutako mailaren programazioa artikulatzea ahalbidetzen du, konpetentzien arabera ikaskuntzaren ikuspegia sostengatzen duten jakintzak eta gaitasunak elkartzen dituzten zenbait testuingurutan oinarrituta.

j) *Ikaskuntzarako diseinu unibertsala (IDU)*: curriculumak garatzeko printzipioen multzoa, ikasle guztiei hezkuntzarako sarbidean aukera-berdintasuna ematen diena, inklusio eta parte-hartze eraginkorrak lortzeko helburuarekin, ikaskuntzarako oztopoak minimizatuz eta ikasle guztien ikasteko aukerak maximizatuz.

3.– artikulua. Batxilergoaren antolaketa.

1.– Hezkuntza Sailak eta, hala badagokio, ikastetxeek eskainiko dituzten Batxilergoko modalitateak honako hauek izango dira:

- a) Arteak.
- b) Zientziak eta Teknologia.
- c) Orokorra.
- d) Humanitateak eta Gizarte Zientziak.

2.– Arteen modalitatea bi bidetan antolatuko da: bata Arte Plastikoei, Irudiari eta Diseinuari buruzkoa; eta, bestea, Musikari eta Arte Eszenikoei buruzkoa.

3.– Ikasleek ikasten duten modalitateko jakintasgai espezifiko guztien artean hautatu ahal izango dute. Ondorio horietarako, ikastetxeek eskaintzen dituzten modalitateetako eta, hala badagokio, bideetako jakintzagai espezifiko guztiak eskainiko dituzte. Jakintzagaiak eta bideak hautatzeko aukera mugatu ahal izango da soilik baldin eta ikasle gutxiegi badago, betiere hezkuntza-arloan eskumena duen sailak ezarritako irizpide objektiboen arabera. Ikastetxe batean antolaketa-arrazoen ondorioz jakintzagai espezifikoen eskaintza mugatuta geratzen denean, eskumena duen sailak aukera emango du arrazoi horren ondorioz irakatsi ezin diren jakintzagaiak urrutiko hezkuntzako modalitatearen bidez edo beste ikastetxe batzuetan ikasteko.

4.– Arteen modalitateko bideen eskaintza ikastetxe berean antolaketa-arrazoen ondorioz mugatuta geratzen bada, ulertu beharko da aurreko apartatuan araututakoa eskaintako bidea osatzen duten jakintzagaiei aplikatzekoa dela.

5.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren eta Batxilergoaren arteko trantsizioa errazteko, azken horren antolaketan ahaleginak egingo dira, DBHko titulua jakintzagairen bat gainditu gabe lortu zuten eta Batxilergoan jarraitzen duten ikasleek etapa berrian arrakasta ziurtatzeko indartze-neurriak izan ditzaten.

6.– Batxilergoko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeek dekretu honetan ezartzen diren curriculum-elementuetara egokitu behar dute beren irakaskuntza-praktika, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak (otsailaren 19ko 1/1993 Legea) ezartzen dituen alderdietan ikastetxe bakoitzak duen autonomia pedagogikoa ezertan galarazi gabe.

7.– V. eranskinean zehazten da ikastetxeek jakintzagaietara bideratu behar duten gutxieneko ordu-kopurua, baita ikastetxeak, bere autonomiaren arabera, jakintzagaien artean banatu ahal izango dituen orduak ere.

8.– Ikastetxe bakoitzak, bere autonomia pedagogikoaz baliatuz eta ikasleen hezkuntza-premien arabera, etaparen antolaketa, jakintzagaien banaketa edo jakintzen mailaz mailako banaketa eta ordutegi-esparrua konfiguratu beharko ditu bere hezkuntza-proiektuaren arabera, dekretu honetan ezarritakoa ezertan galarazi gabe.

4.– artikulua. Batxilergoko etaparen xedeak.

Batxilergoaren helburua da ikasleei prestakuntza, heldutasun intelektuala eta giza heldutasuna ematea, ezagutzak, gaitasunak eta jarrerak, helduarorako eta bete-beteko bizitzarako prestatzeko, gizabanako diren aldetik, bizikidetzaren harmoniatsua garatzearekin eta gizarte bidezkoagoa eta ekitatezkoagoa eraikitzearekin konprometitutako kide aktiboak izan daitezen, bai eta naturaren kontserbazioarekin eta garapen iraunkorarekin konprometitutako pertsonak ere. Halaber, etapa horrek bermatu beharko du ikasleak goi-mailako ikasketak egiteko edo lan-munduan behar bezalako bermekin txertatzeko prestatuko direla, eta bizitza osoan ikasten eta prestatzen jarraitzeko motibazioa izango dutela.

5.– artikulua. Batxilergoko etaparen ezaugarri orokorrak.

Batxilergoa honako printzipio hauen arabera antolatzen da:

Batxilergoko ikasketak egin ahal izango dituzte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua, edo Lanbide Heziketako edo Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikariaren edo goi-mailako teknikariaren, edo Kiroletako teknikariaren edo goi-mailako teknikariaren titulua dutenek.

1.– Batxilergoko etapa bi mailatan garatuko da: Batxilergoko 1. eta 2. mailak.

2.– Ikasleek lau urte eman ditzakete, jarraian edo ez, Batxilergoa araubide arruntean egiten.

3.– Eskumena duen sailak Batxilergoko plaza publikoen eskaintza pixkanaka handitzea sustatuko du, haren modalitate eta bide guztietan.

4.– Batxilergoko etapan garapen pertsonalaren, familiarren, soziokulturalaren, eta profesionalaren esparruekin erlazionatutako alderdiak landuko dira.

5.– Irakasle guztiak dagokien curriculum-jakintzagaitik modu bateratu eta koordinatuan esku hartzen duten hezitzaileak dira, eta lankidetzan jarduten dute baterako hezkuntza-arduradunekin, nagusiki familiarekin edo legezko tutoreekin. Baita instantzia eta eragile sozializatzaileekin eta hezkuntzakoekin ere.

6.– Ikastetxeek bertara sartzeko eta bertan egoteko aukera-berdintasuna sustatuko dute, ikasleak onartzeko araudiaren arabera. Horretarako, ikasle guztiei hezkuntza-aukera berak eskainiko dizkiete, eta diskriminazio positiboko ekintza inklusiboak egingo dituzte, –hezkuntza-prozesuan laguntzeaz gainera eskola-porroterako arriskua aurreikusiko dutenak–, desabantaila ekonomiko, sozial, kultural

edo pertsonalak dituztenen alde.

7.– Batxilergoko jakintzagaiek curriculumean euskal kulturaren eta hizkuntzaren dimentsio espezifikoak txertatuko dute eta funtsezko konpetentzia guztiak garatzen lagunduko dute.

6.– artikulua. Batxilergoko etaparen printzipio pedagogikoak.

1.– Inklusioaren eta ekitatearen printzipioaren aplikazioa bermatzeko, ikastetxeek beren proposamen pedagogikoak landuko dituzte etapa honetako ikasle guztientzat, haien aniztasuna kontuan hartuta. Era berean, ikasleen ikasteko erritmo desberdinak kontuan hartuko dituzten, beren kabuz ikasteko gaitasuna bultzatuko duten, talde-lana sustatuko duten eta ikerketa-metodo egokiak aplikatuko dituzten metodoak ezarriko dituzte.

2.– Hezkuntza-arloko esku-hartzearen helburua izango da ikasle bakoitzari Batxilergoko irteera-profilean aurreikusitako funtsezko konpetentziak behar bezala eskuratzeko bidea emango dioten oinarriak modu progresiboan garatzea eta finkatzea, betiere ikasle bakoitzaren heltze-prozesua eta etapa honetarako espero diren jardun-mailak kontuan hartuta.

3.– Honako hauek bermatu behar dira: hezkuntza-inklusioa eta hizkuntza-inklusioa; arreta pertsonalizatua; ikasleek ikastetxeko egituretan eta bizikidetzan parte hartzea; ikaskuntzan zailtasun espezifikoak goiz hautematea; gaitasun handiko ikasleei arreta ematea; eta laguntzeko eta malgutzeko mekanismoak, alternatiba metodologikoak eta beste neurri batzuk abian jartzea. Hezkuntza-inklusioa bermatzeko hartzen diren antolaketa-, metodologia- eta curriculum-neurriak Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren printzipioei jarraituko diete, pertsona guztiek hezkuntza-arrakasta lortu dezaten.

4.– Batxilergoaren curriculumaren zehaztapena eta garapena bideratu beharko da ikasle guztiak gizarteratzera, garapen pertsonal orekatua izatera, herritartasun kritikoa, berdintasuneko, aktiboa eta konstruktiboa eraikitzen eta geroztiko prestakuntza-prozesuetarako sarbidea erraztera. Helburu horiek hertsiki erlazionatuta daude I. eranskinean zehazten den Batxilergoko irteera-profilekin.

5.– Konpetentzia-curriculuma ikaskuntza sakon eta funtzional jakin batera bideratuta dago, eta, hartara, ikasten dena askotariko inguruneetan erabili eta transferitu ahal izango da, denboran iraun ahalko du, orotariko testuinguruetan erabili ahal izango da eta problemak ebazteko aukera emango du.

6.– Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak behar diren neurriak sustatuko ditu jakintzagaietan, irakurtzeko interesa eta ohitura eta jendaurrean behar bezala hitz egiteko gaitasuna sustatuko dituzten jarduerak garatzeko.

7.– Ikaskuntzen integrazioa sustatze aldera, irakas-denboraren zati bat eskaini beharko zaio zeharkako proiektu adierazgarriak eta garrantzitsuak egiteari eta problemak modu kolaboratiboan ebazteari, ikasleen autoestimua, autonomia, gogoeta egitea eta erantzukizuna indartu daitezten.

8.– Jakintzagai guztietatik zeharka sustatu behar dira genero-ikuspegia, bakearen aldeko hezkuntza, osasunerako hezkuntza, sentsibiltate estetiko eta sorkuntza artistikoa, iraunkortasunerako eta kontsumo arduratsurako hezkuntza, elkarrekiko errespetua eta indarkeriazko edo diskriminaziozko jarrera eta portaeren prebentzioa,

eta berdinen arteko kooperazioa. Bereziki, indarkeria matxistarekin, LGBTIfobikoarekin, arrazistarekin edo edozein motatako aniztasunarekin lotutako indarkeria-motaren bat jasatean sortzen diren ondoeza-egoerak identifikatu behar dira.

9.– Arreta berezia eskaini behar zaio ongizateari. Arreta horretan sartzen dira ondo, harmonian eta lasai sentitzearen esperientzia subjektiboa eta zailtasunei aurre egiteak eta modu positiboan gainditzeak sortzen duen gogobetetasun-esperientzia pertsonala. Modu espezifikoan, arreta eskaini behar zaio indarkeria-motaren bat jasaten denean sortzen diren ondoez-egoerak identifikatzeari, bereziki indarkeria matxistari, LGTBIfobikoari eta/edo arrazistari loturik dauden kasuetan.

10.– Ikasteko prozesuaren erdigunean kokatzen da hizkuntza, informaziorako eta ezagutzaren eraikuntzarako sarbide-tresna da eta. Hizkuntzen ikaskuntza konpetentzia-ikuspegi globalizatutik planteatzen da, zehazki hizkuntzen ikaskuntza integratua eta hizkuntzen eta jakintzen ikaskuntza integratua oinarri izango dituzten ikuspegi metodologikoen bidez.

11.– Hizkuntza ofizialak soilik erabiliko dira atzerriko hizkuntzak ikasteko prozesuan laguntzeko. Prozesu horretan, ulermena, adierazpidea eta ahozko interakzioa lehenetsiko dira.

12.– Konpetentzien arabeko pedagogiaren ikuspegiaren aukera metodologikoen barruan, garrantzitsua da aintzat hartzea konpetentzien garapen integrala, egoera errealetan oinarritutako benetako jardueren bidez lan egitea eta abar.

13.– Etapa honetan, ebaluazioa jarraia eta prestakuntzako da. Halaber, ebaluazioa integratzailea, kolaboratiboa eta parte hartzekoa da. Hori dela eta, ikastetxeek eta irakasle-talde ebaluatzaileek bitarteko eta estrategia egokiak bermatu behar dituzte, ikasleak eta familiak ebaluazioari lotutako prozesuetan integra daitezen eta horietan aktiboki kolaboratu eta parte hartu dezaten.

14.– Eskumena duen sailak behar diren neurriak sustatuko ditu, ikasleen tutoretza pertsonala, bai eta hezkuntza-orientazioa eta orientazio psikopedagogikoa eta profesionala ere, funtsezko elementuak izan daitezen Batxilergoko etaparen antolamenduan.

7.– artikulua. Helburuak.

Batxilergoak ikasleengan honako hauek egiteko gaitasunak garatzen lagunduko du:

a) Herritartasun demokratikoa egikaritzea, ikuspegi globaletik, eta kontzientzia zibiko arduratsua hartzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren balioek eta giza eskubideek inspiratua, gizarte bidezko eta ekitatezko baten eraikuntzan erantzukizun partekatua sustatuko duena.

b) Heldutasun pertsonala, afektibo-sexuala eta soziala finkatzea, begirunez, arduraz eta modu autonomoan jarduteko eta espiritu kritikoa garatzeko aukera izan dezaten. Gatazka pertsonalak, familiarrak eta sozialak eta indarkeria-egoera posibleak aurreikustea, hautematea eta modu baketsuan ebaztea.

c) Emakumeen eta gizonen eskubide- eta aukera-berdintasun eraginkorra sustatzea, dauden desberdintasunak analizatzea eta kritikoki baloratzea, baita emakumeek historian izan duten zeregina aitortzea eta irakastea ere, eta benetako berdintasuna eta jaiotzan, sexuan, arraza- edo etnia-jatorrian, desgaitasunean, adinean, gaixotasunean, erlijioan edo sinesmenetan, sexu-orientazioan edo

genero-identitatean nahiz beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialetan oinarritutako diskriminaziorik eza bultzatzea.

d) Irakurtzeko, ikasteko eta diziplina izateko ohiturak finkatzea, ikaskuntza eraginkortasunez aprobetxatzeko beharrezko baldintza gisa eta garapen pertsonalerako bitarteko gisa.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ondo menderatzea ahoz zein idatziz.

f) Atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan jarriotasunez eta zuzentasunez hitz egitea.

g) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak kaudimenez eta erantzukizunez erabiltzea.

h) Gaur egungo munduaren errealitateak, aurrekari historikoak eta bilakaeraren faktore nagusiak ezagutzea eta kritikoki baloratzea. Modu solidarioan parte hartzea beren gizarte-ingurunearen garapenean eta hobekuntzan.

i) Funtsezko ezagutza zientifikoak eta teknologikoak eskuratzea eta hautatutako modalitatearen berezko oinarritzko trebetasunak menderatzea.

j) Ikerketaren eta metodo zientifikoaren funtsezko elementuak eta prozedurak ulertzea. Zientziak eta teknologiak bizi-baldintzen aldaketan izandako ekarpena ezagutzea eta modu kritikoan baloratzea, eta ingurumenarekiko sentsibilitatea eta errespetua finkatzea.

k) Espiritu ekintzailea finkatzea, sormena, malgutasuna, ekimena, talde-lana, norberaren gaineko konfiantza eta zentzu kritikoa bezalako jarreraren bidez.

l) Sentsibilitate artistikoa eta literarioa eta irizpide estetikoak garatzea, prestakuntza eta aberaste kulturalaren iturri gisa.

m) Heziketa fisikoa eta kirola erabiltzea garapen pertsonal eta sozialaren alde egiteko. Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak egiteko ohiturak finkatzea, ongizate fisikoari eta mentalari mesede egiteko, eta garapen pertsonal eta sozialerako bitarteko gisa.

n) Mugikortasun seguru eta osasungarriaren esparruan errespetu- eta prebentzio-jarrerak finkatzea.

o) Klima-aldaketaren aurkako borrokan eta garapen iraunkorraren defentsan jarrera arduratsua eta konprometitua sustatzea.

p) Garapen iraunkorrerako Helburuek ekartzen dituzten aldaketak sustatzea eta erronkei aurre egitea.

8.– artikulua. Hizkuntza-esparrua.

1.– Hezkuntza-sistemaren lehentasunezko hizkuntza-helburua da ikasle guztien komunikazio- eta hizkuntza-kompetentzia garatzea, eleaniztasunaren eta kulturartekotasunaren ikuspegitik euskararen erabileran sakonduz. Batxilergoa amaitzean, ikasle guztiek hizkuntza ofizialak ondo menderatu beharko dituzte testu luze eta eskakizun-maila jakin bat duten askotariko testuak ulertzeko eta horietan zentzu inplizituak ezagutzeko. Modu erraz eta espontaneoan adierazten jakingo du, adierazpen egokia aurkitzeko ahalegin nabarmenik egin gabe. Gainera, giza

harremanetan, ikasketa arloan eta lan arloan hizkuntza malgutasunez eta eranginkortasunez erabiltzeko gai izango da. Ikasleek, aldi berean, gutxienez atzerriko hizkuntza batean izan beharko dute komunikatzeko hizkuntza-gaitasuna.

2.– Hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza antolatzeko eta horiek tratatu eta erabiltzeko irizpideak ikastetxeen autonomiaren esparruan zehaztuko dira, ikasleen eta beren ingurunearen errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta. Ikastetxeak hartzen dituen erabaki guztiak ikastetxearen hizkuntza-proiektuan zehaztuko dira.

3.– Euskararen irakaskuntzari dagokionez, hizkuntza-proiektuak curriculumaren eta ikastetxearen helburuak zehaztuko ditu. Era berean, euskararen ingurumen-erabilera ziurtatzera bideratutako eskolaz kanpoko jardueren proposamenak jaso behar ditu.

4.– Komunikazio- eta hizkuntza-kompetentziaren garapena zeharka landuko da curriculum-jakintzagai testuinguruan.

5.– Euskal Hezkuntza Sistemaren berandu sartzeko diren ikasle atzerritarren harrerak eta hizkuntza-arretak ikasle horien inklusioa ahalbidetuko duten prestakuntza programa integralak eskatuko dituzte.

6.– Irakasleak prestatzeko eta hobetzeko plan bat egingo da, hizkuntzen esparruan hizkuntza- eta metodologia-gaitasunak hobetzeko.

9.– artikulua. Ikasleek Batxilergoko etapa amaitzerako izan behar duten irteera-profila eta funtsezko kompetentziak.

1.– Batxilergoko etapako ikasleei lagunduko die Batxilergoko irteera-profila (l. eranskina) lortzeko behar dituzten kompetentziak garatzen.

2.– Ikasleek etapa amaitzerako izan behar duten Batxilergoko irteera-profilak bizitzaren esparru eta egoeretan moldatzeko gai den pertsonaren ereduari egiten dio erreferentzia. Era berean, ikasleek oinarrizko irakaskuntza amaitzean eskuratu eta garatu behar izan dituzten funtsezko kompetentziak finkatzen ditu. Ikasleek kompetentzia horiek garatzen jarraitu ahal izango dute etengabeko ikaskuntzaren bidez, eta kompetentzia horiek lagungarriak izango zaizkie helduen bizitzan sartzeko.

3.– Batxilergoko irteera-profila etapa honetako curriculum-arkitekturaren ardatza da. Horrenbestez, eskola-praktikan curriculum-erabakiak, estrategiak eta orientabide metodologikoak oinarritzen dituen elementutzat hartzen da, baita erreferentzia-elementutzat ere, ikasleen ikaskuntzen barne- eta kanpo-ebaluazioari begira. Batxilergoko irteera-profila etapako helburuekin eta jakintzagai bakoitzean kokatutako kompetentzia espezifikoekin erlazionatuta dago.

4.– Hezkuntza sailak, Batxilergoko irteera-profila erreferentziazat harturik –erkidea da Euskal Autonomia Erkidegoko ikasle guztientzat–, behar den aholkularitza eskainiko die ikastetxeei, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan irteera-profil hori beren ikasleentzat egokitu dezaten.

5.– Batxilergoan, ikasleek funtsezko kompetentzia hauek garatuko dituzte:

– hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia,

– kompetentzia eleaniztuna,

– matematikarako kompetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako kompetentzia,

- konpetentzia digitala,
- konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa,
- herritartasunerako konpetentzia,
- ekintzailtza-konpetentzia,
- kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia.

6.– Dekretu honek ezartzen dituen irakaskuntzen xedea da Batxilergoko irteera-profilean aurreikusitako funtsezko konpetentzien garapena bermatzea. Sail eskudunak ezarritako curriculumek eta ikastetxeek beren hezkuntza-proiektuetan egiten duten haien zehaztapenak ere Batxilergoko irteera-profil hori hartuko dute erreferentetzat.

II. KAPITULUA. CURRICULUMA

10.– artikulua. Curriculumaren alderdi orokorrak.

1.– Curriculumak honako alderdi hauek hartzen ditu: helburuak, jakintzagaien konpetentziak (funtsezkoak eta espezifikoak), ebaluazio-irizpideak, oinarrizko jakintza gisa enuntziatutako edukiak, ikas-egoerak, metodo pedagogikoak eta ebaluazio irizpideak.

2.– Dekretu honek Batxilergoko etapako gutxieneko irakaskuntzak taxutzen dituzten curriculumaren oinarrizko alderdiak finkatzen ditu.

3.– Ikastetxeek, beren autonomiaz baliatuz, Batxilergoaren curriculuma garatu, eta, hala badagokio, osatu egingo dute. Zehaztapen hori Ikastetxearen Curriculum Proiektuaren parte izango da.

4.– Dekretu honen II. eranskinean finkatzen dira jakintzagai bakoitzerako konpetentzia espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak.

5.– Funtsezko konpetentziak eta konpetentzia espezifikoak eskuratze eta garatze aldera, irakasle-taldeak sail eskudunak xedatzen dituen baldintzetan planifikatuko ditu ikas-egoerak. Irakasleei beren praktika errazte aldera, III. eranskinean horiek diseinatzeko orientabideak enuntziatzen dira.

11.– artikulua. Jakintzagai komunak.

1.– Batxilergoko modalitate guztien lehen mailako jakintzagai komunak honako hauek izango dira:

- a) Heziketa Fisikoa.
- b) Filosofia.
- c) Euskara eta Literatura I.
- d) Gaztelania eta Literatura I.
- e) Atzerriko Hizkuntza I.
- f) Tutoretza.

2.– Batxilergoko modalitate guztien bigarren mailako jakintzagai komunak honako hauek izango dira:

- a) Espainiaren Historia.
- b) Filosofiaren Historia.
- c) Euskara eta Literatura II.
- d) Gaztelania eta Literatura II.
- e) Atzerriko Hizkuntza II.
- f) Tutoretza.

12.– artikulua. Arteen modalitateko jakintzagai espezifikoak.

1.– Arteen modalitateetik jotzen duten ikasleek Arte Plastikoen, Irudiaren eta Diseinuaren bidea edo Musikaren eta Arte Eszenikoen bidea aukeratu beharko dute.

2.– Lehen mailan, Arte Plastikoen, Irudiaren eta Diseinuaren bidea aukeratzen duten ikasleek Marrazketa Artistikoa I jakintzagaia eta modalitateko beste bi jakintzagai egin beharko dituzte, honako hauen artean aukeratuta:

- a) Ikus-entzunezko kultura.
- b) Arte Plastikoei eta Diseinuari Aplikatutako Marrazketa Teknikoa I.
- c) Proiektu Artistikoak.
- d) Bolumena.

3.– Bigarren mailan, Arte Plastikoen, Irudiaren eta Diseinuaren bidea aukeratzen duten ikasleek Marrazketa Artistikoa II jakintzagaia eta modalitateko beste bi jakintzagai egin beharko dituzte, honako hauen artean aukeratuta:

- a) Arte Plastikoei eta Diseinuari Aplikatutako Marrazketa Teknikoa II.
- b) Diseinua.
- c) Artearen Oinarriak.
- d) Adierazpen Grafiko-plastikoaren Teknikak.

4.– Bestalde, Musikaren eta Arte Eszenikoen bidetik jotzen duten ikasleek, lehen mailan, Análisi Musikala I edo Arte Eszenikoak I jakintzagaia (aukeratzen dutena) eta modalitateko beste bi jakintzagai egingo dituzte, honako hauen artean aukeratuta:

- a) Análisi Musikala I.
- b) Arte Eszenikoak I.
- c) Korua eta Ahots Teknikak I.
- d) Ikus-entzunezko Kultura.
- e) Musika Hizkuntza eta Praktika.

5.– Bigarren mailan, Musikaren eta Arte Eszenikoen bidetik jotzen duten ikasleek Análisi Musikala II edo Arte Eszenikoak II jakintzagaia (aukeratzen dutena) eta modalitateko beste bi jakintzagai egingo dituzte, honako hauen artean aukeratuta:

- a) Analisi Musikala II.
- b) Arte Eszenikoak II.
- c) Korua eta Ahots Teknikak II.
- d) Musikaren eta Dantzaren Historia.
- e) Literatura Dramatikoa.

13.– artikulua. Zientzien eta Teknologiaren modalitateko jakintzagai espezifikoak.

1.– Zientzien eta Teknologiaren modalitateko jotzen duten ikasleek, lehen mailan, Matematika I jakintzagaia eta modalitateko beste bi jakintzagai egingo dituzte, honako hauen artean aukeratuta:

- a) Biologia, Geologia eta Ingurumen Zientziak.
- b) Marrazketa Teknikoa I.
- c) Fisika eta Kimika.
- d) Teknologia eta Ingeniaritza I.

2.– Era berean, bigarren mailan ikasleek Matematika II edo Gizarte Zientziei Aplikaturako Matematika II jakintzagaia (aukeratzen dutena) eta modalitateko beste bi jakintzagai egingo dituzte, honako hauen artean aukeratuta:

- a) Biologia.
- b) Marrazketa Teknikoa II.
- c) Fisika.
- d) Geologia eta Ingurumen Zientziak.
- e) Kimika.
- f) Teknologia eta Ingeniaritza II.

14.– artikulua. Modalitate Orokorreko jakintzagai espezifikoak.

1.– Modalitate Orokorretik jotzen duten ikasleek, lehen mailan, Matematika Orokorra jakintzagaia eta ikastetxean eskaintzen diren lehen mailako modalitateko jakintzagai guztien artean aukeratuko dituzten beste bi jakintzagai egingo dituzte. Eskaintza horretan nahitaez sartuko da Ekonomia, Ekintzailletza eta Enpresa Jarduera jakintzagaia, modalitate horretako espezifikoak.

2.– Era berean, bigarren mailan ikasleek Zientzia Orokorrek jakintzagaia eta ikastetxean eskaintzen diren bigarren mailako modalitateko jakintzagai guztien artean aukeratuko dituzten beste bi jakintzagai egingo dituzte. Eskaintza horretan nahitaez sartuko da Kultura eta Arte Mugimenduak jakintzagaia, modalitate horretako espezifikoak.

15.– artikulua. Humanitateen eta Gizarte Zientzien modalitateko jakintzagai espezifikoak.

1.– Humanitateen eta Gizarte Zientzien modalitateko jotzen duten ikasleek, lehen

mailan, Latina I edo Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika I jakintzagaia (aukeratzen dutena) eta modalitateko beste bi jakintzagai egingo dituzte, honako hauen artean aukeratuta:

- a) Ekonomia.
- b) Grekoa I.
- c) Mundu Garaikidearen Historia.
- d) Latina I.
- e) Literatura Unibertsala.
- f) Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika I.

2.– Era berean, bigarren mailan ikasleek Latina II edo Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II jakintzagaia (aukeratzen dutena) eta modalitateko beste bi jakintzagai egingo dituzte, honako hauen artean aukeratuta:

- a) Enpresa eta Negozio Ereduen Diseinua.
- b) Geografia.
- c) Grekoa II.
- d) Artearen Historia.
- e) Latina II.
- f) Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II.

16.– artikulua. Tutoretza.

Eta osoan zehar, ikastetxeek astean ordubete eskainiko diote ikasleekiko tutoretza-ekintzari.

17.– artikulua. Aukerako jakintzagaiak.

1.– Ikastetxeek II. eranskinean zerrendatutako aukerako edozein irakasgai eskaini ahal izango dute, bai eta ikastetxeak berak proposatutako beste jakintzagai batzuk ere, baldin eta irakasgai horiek hezkuntza-arloan eskumena duen sailaren alde aurreko baimena badute, proposatutako curriculum-edia Batxilergoko mailari eta irakaskuntzei egokitzen zaien kontuan hartuta.

2.– Hala ere, nahitaez eskaini beharko da atzerriko bigarren hizkuntza bat Batxilergoko lehen eta bigarren mailetan, bai eta Jarduera Fisikoa, Aisialdia eta Osasuna bigarren mailan irakasgaia ere.

18.– artikulua. Batxilergoa hiru ikasturtetan antolatzea.

1.– Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 32.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, hezkuntza-administrazioek neurriak ezarriko dituzte ikasle batek Batxilergoa araubide arruntean hiru ikasturtetan egin dezan ahalbidetzeko, betiere haren inguruabar pertsonal iraunkor edo iragankorrek hala gomendatzen badute. Kasu horietan, ikasleek Batxilergoko bi mailetak jakintzagaiak aldi berean egiteko aukera aintzat hartuko da.

2.– Neurri horretaz baliatu ahal izango dira honako inguruabar hauetako batean daudenak:

- a) Etapa Musikako edo Dantzako lanbide-irakaskuntzekin batera egitea.
- b) Goi-mailako edo errendimendu handiko kirolaritzat hartzen direla frogatzea.
- c) Ohikoaz bestelako hezkuntza-arreta behar izatea, hezkuntza-laguntzaren premia espezifikoren bat dutelako.
- d) Hezkuntza-administrazioaren iritziz, eta hark xedatu bezala, neurri hori aplikatzea justifikatzen duten beste inguruabar batzuk alegatzea.

3. - Hezkuntza-arloan eskumena duen sailak zehaztuko du Batxilergoa osatzen duten jakintzagaiak nola banatuko diren, eta lehentasuna finkatuta duten jakintzagaien eskaintzaren plangintza egokia bermatuko du, IV. eranskinean xedatutakoaren arabera.

III. KAPITULUA. KUDEAKETA PEDAGOGIKOA

19.– artikulua. Ikastetxeen autonomia.

1.– Hezkuntza Sailak ikastetxeen pedagogia- eta kudeaketa-autonomia sustatuko du. Gainera, irakasleen talde-lana eta ikerketa-jarduera sustatuko du, heziketa-praktikatik abiatuta.

2.– Ikastetxeek autonomia izango dute beren proiektu estrategikoak egiteko, eta, hori garatzeko, beren Hezkuntza-Proiektuan ezarritakoa hartuko dute erreferentziazat.

3.– Ikastetxe bakoitzak bere curriculum-proiektua garatu dezake. Horretarako, dekretu honen V. eranskinean finkatutako asteko ordutegiaren ehuneko bat erabili ahal izango du modu autonomoan kudeatzeko. Taldeak eta jakintzagaiak malgutasunez antolatu ahal izango dituzte; ikasleen ezaugarrien arabera egokienak diren antolaketako eta aniztasunari arreta emateko neurriak hartu ahal izango dituzte; eta arlo bereko jakintzagaiak batera ematea eskatzen duten antolaketa didaktikoak ezarri ahal izango dituzte.

4.– Curriculum-proiektua garatzean, ikastetxeek, dagokion zuzendaritzak baimena eman ondoren, ikasturtean zehar denbora-banaketa desberdina sartu ahal izango dute beren hautazko jakintzagaietan.

5.– Ikastetxeek sail eskudunak ezarritako curriculumak zehaztu edo egokituko dituzte, eta beren Curriculum Proiektuan txertatuko dituzte. Proiektu horrek herritartasun aktibora bideratutako konpetentzia-ikaskuntzaren berezko printzipioak, helburuak eta metodologia sustatu eta garatuko ditu.

6.– Zuzendaritza-taldeek, beren autonomia esparruaren barruan, hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea sustatuko dute, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan ezarritako konpromisoak bete daitezen bultzatze aldera.

7.– Batxilergoaren helburuak erdieste aldera, zuzendaritzek koordinazio- eta kooperazio-harremanak ezarriko dituzte hurbileko beste erakunde batzuekin, bereziki udalekin.

8.– Ikastetxeek beren ingurune erakundeekin kolaboratuko dute, hizkuntza-normalizazioko planak susta daitezen.

9.– Ikasleek Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren prestaketan parte har dezaten sustatuko da.

10.– Ikastetxeek familien parte-hartzea eta inplikazioa sustatuko dute. Horretarako, ikastetxeek eta guraso-elkarteek prestakuntza-ekintzak garatu ahal izango dituzte familientzat eta legezko tutoreentzat, eta, horretarako, curriculumean ezarritako inklusio- eta hezkidetzaren printzipioak kontuan hartuko dituzte.

20.– artikulua. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua.

1.– Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak barne hartuko du ikastetxearen autonomiatik landutako proposamen integrala, bai eta hezkuntza-komunitateak ikastetxe horretan esku-hartzeko prozesua koherentziaz zuzentzeko erreferentzia gisa balio duten jarraibide nagusiak ere.

2.– Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak honako alderdi hauek jasoko ditu: ikastetxearen identitate-printzipioak, ikastetxearen ezaugarriekin eta balioekin; lortu nahi dituen hezkuntza-helburuak, ikastetxearen printzipioen arabekoak; ikasleek lortu behar dituzten funtsezko konpetentziak, ikasleen ezaugarrien arabekoak; oinarrizko irizpideak eta ildo estrategiko nagusiak; eta jarduteko lehentasunak, hizkuntzaren, curriculumaren eta antolaketaren arloan garatuko direnak –hori guztia ikastetxearen testuinguruaren arabera–.

3.– Ikastetxe publikoetako Eskola Kontseiluari edo itunpeko ikastetxe pribatuetako titularrari dagokie Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua onartzea. Nolanahi ere, jendaurrean jarri beharko da.

21.– artikulua. Ordutegia.

1.– Ikastetxe bakoitzak jakintzagaien artean banatuko ditu maila bakoitzeko orduak, beti ere V. eranskinean gutxienezkotzat jotzen den ordu-kopurua errespetatuta. Aukera hori baliatzen ez duten ikastetxeek eranskin berean adierazitako erreferentziazko ordutegiari jarraituko diote.

2.– Batxilergoko lehen mailan, astean 34 eskola-ordu emango dira gutxienez; eta bigarren mailan, 33 ordu.

3.– Ikastetxeek, beren autonomia pedagogikoaz eta antolaketa-autonomiaz baliatuz, ordubetez besteko iraupena duten ordutegi-moduluak ezarri ahal izango dituzte, betiere ikasleen asteko eskola-orduen gutxieneko kopurua eta irakasleen lanaldia betetzea.

4.– Batxilergoko eguneko eskolaldia goizeko saioetan edo goiz eta arratsaldekoetan antolatu ahal izango da.

5.– Batxilergoko ikastetxeek ordutegia malgutzeko aukera aurreikusi behar dute, ikasleek dituzten egoera berezietan erantzuteko –besteak beste, osasuna, eskolatzeko partekatua edo ikasketen aldibereotasuna direla eta–, indarrean dagoen araudiaren arabera.

22.– artikulua. Familien eta legezko tutoreen inplikazioa eta kolaborazioa hezkuntza-prozesuan.

1.– Gurasoek eta legezko tutoreek adin txikiko ikasleen eskola-hezkuntzaren jarraipena egiteko eta eskola-hezkuntzan parte hartzeko eskubidea dute.

2.– Adin txikiko ikasleen gurasoek eta legezko tutoreek hezkuntza-prozesuan

lagundu eta parte hartu beharko dute, eta, hartara, ikastetxeek ikasleen aurrerabidea errazteko hartzen dituzten laguntza-neurri indargarrietan kolaboratuko dute.

23.– artikulua. Irakasle-taldea.

1.– Talde berean esku hartzen duten irakasleek osatzen dute talde horren irakasle-taldea.

2.– Zuzendaritza-taldeak talde-lana, gogoeta-praktika eta hezkuntza-ikerketak sustatuko ditu koordinazio-bileren bidez, betiere irakaskuntza-ekintzaren testuinguruan. Esparru horretan, irakasle-taldean koordinazio-bileretarako ordutegi espezifikoak aurreikusi behar dira, irakasleek ikastetxean egon behar duten aldiak.

3.– Ikastetxeko zuzendariari dagokio talde-gelei edo jakintzagaiei irakasleak esleitzea. Ikastetxean gerora sortutako beharrei erantzute aldera, ikastetxeko zuzendariak aldi baterako eta behar bezala justifikatuta aldatu ahal izango du esleipen hori, baita irakastorduen banaketa ere.

24.– artikulua. Irakasleen kompetentzia-profila, prestakuntza, koordinazioa eta ebaluazioa.

1.– Irakasleek kompetentzia-profil egokia izan beharko dute beren funtzioen berezko erantzukizunak baldintza ezin hobeetan beren gain hartzeko eta, bereziki, ikasleek Batxilergoko irteera-profilari lotutako kompetentziak lortu ditzaten erraztearekin lotzen diren erantzukizunak.

2.– Hezkuntza Sailak zehaztuko du irakasleen kompetentzia-profila.

3.– Irakasleen prestakuntzaren helburua da irakasleen kompetentzia-garapena etengabe hobetzea. Prestakuntza horrek irakasteko eta ikasteko prozesuen ikerketa-, berrikuntza-, garapen- eta ebaluazio-prozesuak barne hartu behar ditu; horretarako, praktikari buruzko -du. Prestakuntza-prozesuetan arreta berezia eskainiko zaie hizkuntza- eta metodologia-gaitasunak hobetzeari hizkuntzen esparruan, hezkuntza inklusiboari, hezkidetzari, aniztasun afektibo-sexualari eta hezkuntza-premia bereziak eta espezifikoak dituzten kolektiboentzako arreta egokiari.

4.– Irakasleek beren etengabeko prestakuntza planifikatu beharko dute beren ikastetxearen premien barruan eta beren praktikari, autoebaluazioari, koebaluazioari edo beste ebaluazio-prozesu batzuei buruzko hausnarketa-prozesuen ondorioetatik abiatuta.

5.– Hezkuntza-komunitateko kide guztien koordinazioa eta kooperazioa sustatuko dira ikastetxeko hezkuntza- eta antolaketa-arloetan. Era berean, inguruneke beste ikastetxe eta hezkuntza-eragile batzuekin koordinatzeko eta kooperatzeko ekintzak sustatuko dira. Irakasleek prozesu horretan kolaboratu eta inplikatu beharko dute.

6.– Irakasleen kompetentzien ebaluazioa hezkuntza-arloan eskumena duen sailak egingo du. Ebaluazio horretan, irakasleek ere parte hartuko dute, beren garapen profesionala hobetzen eta ebaluazio horretatik eratortzen diren prestakuntza-ekintzak planifikatzen laguntzeko.

25.– artikulua. Tutoretza eta orientazioa.

1.– Hezkuntza-orientazioa da irakaskuntza-jardueran txertatutako laguntza-prozesu jarraitua eta sistematikoa. Hezkuntza-orientazioaren helburua da ikasleei laguntzea beren proiektu pertsonalaren eta profesionalaren jabe izateko eta herritartasuna baliatzeko behar dituzten oinarriko kompetentziak garatzen eta

eskuratzen.

2.– Tutoretza eta orientazioa hezkuntza-komunitate osoaren eskumenekoa da, berriaz irakasle-taldeari dagokio eta bereziki tutoreari. Azken hori izango da bere taldeko ikasleen orientazio akademiko eta profesionalaren azken arduraduna, eta bertan eskolak ematen dituzten irakasleak koordinatzeaz eta familiekin edo legezko arduradunekin komunikazio arina ezartzeaz arduratuko da, bereziki ikasle adingabeen kasuan. Hori guztia irakasle orientatzailearen edo aholkulariaren kolaborazioarekin egingo da. Irakasleek tutoretza-lan egokia egingo dutela bermatzeko, irakasle guztiek sail eskudunak ezarritako prestakuntza egingo dute

3.– Batxilergoko etapa osoan, ikasleek tutorearekin ordubeteko tutoretza-saio bat izango dute esleituta.

4.– Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak ezarriko ditu hezkuntza-orientazioa arautzen duten printzipioak, eta printzipio horien arabera zehaztuko du tutoretza-ekintzaren eredia.

5.– Ikastetxeko zuzendaritzak zainduko du tutoretzako eta hezkuntza-orientazioko ekintzak ikastetxeko profesional guztien eta gainerako hezkuntza-komunitatearen artean modu banatu eta koordinatuan gauzatu daitezen.

6.– Hezkuntza-orientazioak, Ikastetxearen Orientazio Plana eta Tutoretza Plana Urteko PI-anean txertatuta daudenak, ikasleen garapen integrala bermatzen duten jardura programatuen, sistematizatuen eta ebaluagarrien multzoa jasoko du, baita laguntza pertsonalizatua ere, nor bere burua ezagutzea eta autonomia garatzea bultzatzeko asmoz, erabakiak hartzeko prozesuan gida ditzan ikasleak. Gainera, irakasle-taldeen ikasleen ikaskuntza eta autonomia errazten duten estrategia didaktikoak eta pedagogikoak sartu beharko dituzte.

7.– Orientazio-prozesuak barnean hartuko ditu orientazio pertsonal, sozial, akademiko eta profesionaleko jarduerak, ikasleek beren burua ezagut dezaten eta erabakiak har ditzaten beren prestakuntza-ibilbidea eta bizi-proiektua eraikitzeko prozesuan. Horretarako, lan-- Ikastetxeek informazioa eta orientazioa eman beharko diete ikasleei, dagozkien modalitateen, bideen eta ikasgaien aukeraketa egokiena izan dadin beren interesetarako eta ondorengo prestakuntza-orientaziorako.

8.– Ikastetxeek informazioa eta orientazioa eman beharko diete ikasleei, dagozkien modalitateak, bideak eta jakintzakagaiak beren interesetarako eta ondorengo prestakuntza-orientaziorako egokienak izan daitezen.

9.– Behar bezala garatutako tutoretza-ekintzak bermatzen du taldeko ikasle bakoitza bere indibidualtasunean eta aniztasunean hartuko dela aintzat. Talde bakoitzeko tutorea da laguntzeko, desberdintasunak hautemateko, inklusioa indartzeko eta aniztasunerako aukera gehien dituen hezkuntza-komunitateko pertsona.

10.– Tutoretza-ekintza funtsezko kompetentziak lortzen laguntzen duten eta, aldi berean, ikasleen ibilbide pertsonala, akademikoa eta profesionala –bilakaera-unearen arabera– modu progresiboan garatu ahal izateko behar diren hezkuntza-ekintzen multzoa da.

11.– Tutoretza-ekintzak jarraipen indibiduala konbinatzen du irakasle guztien jarraipen pertsonalizatuarekin eta taldeko jarraipenarekin, baita ikasleen gizarte-kohesioan laguntzen duten proposamen pedagogikoen aplikazioarekin ere. Halaber, ikasleek beren ikasteko prozesuan eta beren garapen pertsonalean eta sozialean inplikazio aktiboa izan dezaten sustatzen du.

12.– Taldeko tutoretza-saioen edukiak lau gai-multzoren inguruan antolatuko dira: garapen pertsonala, pertsonen arteko harremanak, ikasteko prozesuak eta orientazio akademiko-profesionala. Azken bloke horrek garrantzi handia hartuko du etapa honetan.

13.– Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak, eskura dauden baliabideen bidez, tutoretza-ekintzaren koherentzia eta jarraitutasuna bermatu beharko ditu ikasleak eskolatzen diren bitartean.

14.– Ikasleen tutoretza irakaskuntza-funtzioaren parte da. Ikasle guztiek izan behar dute tutore bat, eta tutore hori arduratuko da dagozkion ikasleen hezkuntza-prozesua orientatzeaz, maila indibidualean zein kolektiboan. Tutorea ikasleen garapen pertsonalaz, haien ongizateaz eta funtsezko konpetentzien lorpen progresiboaz arduratuko da bereziki.

15.– Tutoreari dagokio ikasleei eta beren familiei edo legezko tutoreei ikasleen eskola-jarduerei buruzko guztiaren berri ematea, haiek irakasleengana edo ikastetxeko gobernu-organoetara jotzeko duten eskubidea ukatu gabe.

16.– Tutorearen eskumena da beharrezkoa den dokumentazio akademikoa formalizatu eta betetzea eta irakasle-taldea koordinatzea, ikasleen kudeaketa pedagogikoari dagokionez.

17.– Batxilergoan zehar, irakasle-taldeek ikasle bakoitzari buruzko informaziorik garrantzitsuena jaso eta hurrengo mailara eramango dute. Ikastetxeak informazioa jasotzea eta eskualdatzea erraztuko duen erregistro bat izango du. Tutoreak du erregistro horretan jasotzen den informazioa eguneratzeko eta kudeatzeko erantzukizuna. Erregistro horretan sartuko dira, besteak beste, erdietsi den konpetentzien lorpen-mailari buruzko datuak eta jaso diren errefortzu-neurriak eta laguntzak.

18.– Ikasleek eta beren familiek edo legezko arduradunek ebaluazio banakako txostena jasoko dute maila bakoitza amaitzean. Txosten hori tutoreak egingo du irakasle-taldearen laguntzarekin. Ikaslearen ikaskuntzei buruzko informazioa eta funtsezko konpetentzien lorpen-maila bilduko ditu, eta, bidezkoa bada, hurrengo mailarako gomendioak eta hezkuntza-arloko errefortzu-neurrien proposamenak. Txosten hori ikasleen espedientearekin batera gordeko da, eta ikastetxean aldaketa bat gertatzen denerako ezarritako koordinazio-mekanismoen bidez jarriko da.

19.– Hezkuntza Sailak tresna digitalak emango ditu aurreko bi puntuetan jasotakoa errazteko. Aipatutako dokumentuak ikasleen dokumentazio akademikoaren parte izango dira, eta hezkuntzan eskumena duen sailak adierazi bezala kudeatuko dira.

20.– Ikastetxeko irakasle orientatzaileek tutorearekin eta irakasle-taldeekin kolaboratuko dute orientazio- eta tutoretza-ekintzen plangintzan eta jarraipenean. Beharrezkoa balitz, ikasteko zailtasun espezifikoko aztertzen lagunduko luke, eta ikasle guztien eskola-arrakasta ahalbidetuko duten hezkuntza-erantzun inklusiboak buruzko aholkuak emango lituzke. Halaber, gizartearen, hezkuntzaren eta komunitatearen arloko ikastetxeaz kanpoko eragile eta babesleekiko kolaborazioa koordinatuko dute, familiei zein ikasleei eskola-ibilbidean laguntza emango diete, eta haien ahalmen eta interesak ahalik eta hobekien garatzera bideratutako erabakiak hartzeko orientazioa eskainiko dute.

21.– Hezkuntza-arloan eskumena duen sailak orientabideak emango dizkie ikastetxeei Batxilergoko Orientazioko eta Tutoretza Ekintzako Plana egiteko eta

garatzeko.

26.– artikulua. Batxilergoko etaparako trantsizioa.

1.– Mailaz pasatzean eta etapan eta ikastetxeen arteko trantsizioan, ikastetxeek hezkuntza-koherentzia eta prestakuntzaren jarraitutasuna erraztu eta ziurtatuko dituzten informazioa koordinatzeko eta eskualdatzeko mekanismoak bermatu behar dituzte.

2.– Horretarako, ikaskuntzen garapeneko jarraitutasuna eta ikasleen jarraipen pertsonalizatua bermatzeko, beharrezkoa da horri buruzko informazioa etapa batetik bestera eramatea.

3.– Ikasleak Batxilergoko ikastetxean matrikulatu ondoren, ikastetxeak ikasleen historia akademiko osoa eskuratu ahal izango du, aurreko etapetan egindako ikasketak barne, bai eta aurreko etaparen amaierako banakako txostena ere.

4.– Beste autonomia-erkidego batera joaten den ikaslearen kasuan, ikastetxeak historia akademikoaren kopia bat entregatuko dio, dagokion ikastetxean matrikula formalizatzeko aukera izan dezan.

5.– Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, aholkularitza eta orientazio psikopedagogikoko taldeek arreta berezia jarriko dute trantsizio-prozesuan.

27.– artikulua. Baliabide eta material didaktikoak.

1.– Material eta baliabide didaktikoek bat etorri behar dute dekretu honetan proposatzen den hezkuntza-eredu pedagogikoarekin. Ekitatearen, inklusioaren eta gizarte-kohesioaren printzipioei erantzun behar diete, eskola inklusiborako oinarri gisa.

2.– Baliabide eta material pedagogiko eta didaktikoen diseinuak eta sorkuntzak ikasle guztiek aurrera egin dezaten ahalbidetu behar du, eta irudikapenean, adierazpidean eta konpromisoan proposamen dibertsifikatuak eskaini beharko dizkie. Irizpide hauei jarraitu behar diete:

– genero-ikuspegia,

– aniztasun guztiekiko errespetua: generoa, afektibo-sexuala, kulturala, etnikoa...

– materialen eskuragarritasuna hobetzea eta areagotzea eta ikaskuntzarako eta komunikaziorako oztupoak minimizatzea eta ezabatzea,

– zorrotasun zientifikoa,

– hizkuntza-egokitasuna,

– ikaskuntzen pertsonalizazioa,

– euskarrien aniztasuna.

3. - Ikastetxeek autonomia izango dute Batxilergoan erabili beharreko material eta baliabide didaktikoak sortzeko eta aukeratzeko, indarrean dagoen araudian eta aurretik zehaztutako irizpideetan ezarritakoaren arabera.

4. - Hezkuntza Ikuskaritzak ikastetxeetako hezkuntza-prozesuak behatuko ditu, eta baloratuko du ea erabilitako material eta baliabide didaktikoak koherenteak diren

dekretu honetan proposatutako hezkuntza-ereduarekin, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua osatzen duten elementu guztiak ikuskatzeko ohiko prozesuaren zati gisa.

IV. KAPITULUA. EBALUAZIOA, PROMOZIOA ETA TITULAZIOA.

28.– artikulua. Ikaskuntzen ebaluazioa.

1.– Ikasleen ikaskuntza-prozesuaren ebaluazioa Batxilergoaren funtsezko osagaia da, eta arretaz planifikatu eta garatu behar da irakasteko eta ikasteko prozesuaren barruan.

2.– Ikasleen ebaluazioa globala, jarraia, prestakuntzako eta jakintzagaien arabera berezia izango da, eta funtsezko kompetentzien garapen-maila eta ikaskuntza-prozesuan izandako aurrerapena izango ditu erreferente.

3.– Jakintzagai bakoitzeko irakasleek erabakiko dute, ikasturtea amaitzean, ikasleak helburuak lortu dituen eta dagozkion gaitasunen eskuratzeko-maila egokia lortu duen.

4.– Ikasleek beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez baloratu eta aitortu izateko duten eskubidea bermatuko da, eta, horretarako, behar diren prozedurak ezarriko dira. Prozedura horiek, nolahi ere, etapa honetako ebaluazioaren izaera jarraitua eta jakintzagaien arabera berezia hartuko dute kontuan.

5.– Ikasleek jakintzagaietan egiten dituzten ikaskuntza-prozesuaren ebaluazioen erreferente izango dira haietan barne hartzen diren kompetentzia espezifikoaren ebaluazio-irizpideak.

6.– Beren autonomiaren esparruan, eta indarrean dagoen araudiaren arabera, ikasketxeek ebaluazio-irizpideak eta ezinbesteko ikaskuntzak garatu eta zehaztu beharko dituzte beren hezkuntza-proiektuan eta curriculum-proiektuan, baita ikasle guztien hezkuntza-premiei erantzuteko beharrezkoak diren neurriak ere.

7.– Askotariko ebaluazio-tresnak erabiliko dira, ikasle guztien ikaskuntzaren bilakaera behar bezala baloratzea ahalbidetuko dutenak. Ikasleen ezaugarri eta premia indibidualak eta espezifikoak eta ikas-egoerak egokituko dira.

8.– Ikasleek eta beren familiek, hezkuntza-prozesuaren hasieratik ezagutu behar dituzte ebaluazio-irizpideak, ezinbesteko ikaskuntzak, ikaskuntza-prozesua ebaluatzeko prozedurak, kalifikazio-irizpideak eta ikasleen promozio- edo titulazio-erabakietan aintzat hartuko diren irizpideak. Ikasketxeek horien berri emango diete ikasturte bakoitzaren hasieran.

9.– Ebaluazioak, funtsean, ikasleen aurrerapenak identifikatzera bideratuta egon behar du, baita hezkuntza-prozesuan zehar ikasleek izan ditzaketen zailtasunak hautematera ere, zailtasun horiek zuzentzen lagunduko duten erabakiak hartu daitezkeen irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintzan.

10.– Irakasle-taldeak ikasleen ikasteko prozesuari buruzko eta funtsezko kompetentzien garapenean duten bilakaerari buruzko informazioa biltzeko prozedura sistematikoak eta koordinazio-espazioak ezarriko ditu, betiere ikasle bakoitza hobeto orientatuko duten erabakiak hartu daitezkeen.

11.– Irakasle-taldeak –taldeko tutoreak koordinatuta– ebaluazio jarraia egingo du ikasturtean zehar, eta, ikasturtea amaitzean, azken ebaluazio-saioetako lehenengoa egingo du, eta, jakintzagaien bat gainditu ez duten ikasleen kasuan, ohiz kanpoko azken saioa. Ikasleek lortutako kompetentzia-garapena aztertu ondoren, promozioari

edo, hala badagokio, titulazioari buruzko erabakiak hartuko dituzte, dekretu honen 33. artikuluan jasotakoari jarraikiz. Era berean, bidezko erabakiak hartuko dira laguntza-neurriak planteatu beharri buruz edo lehendik daudenak berrikusteari buruz.

12.– Irakasleek ikasleen ikasketak ez ezik, ikasteko prozesuak eta irakaskuntza-praktika bera ere ebaluatuko dituzte, horien hobekuntza sustatze aldera. Irakasleek lortutako emaitzen analisiari buruzko ondorioetatik abiatuta, neurriak ezarriko dituzte curriculumaren, antolamenduaren eta, bereziki, irakaskuntza-praktikaren esparruan. Neurri horiek plangintza-dokumentuetan jasotako hobekuntza-helburuetan islatuko dira.

29.– artikulua. Ikasturte amaierako ikaskuntzen kalifikazioa.

1.– Jakintzagaietako ikaskuntzen kalifikazioa kasuan kasuko konpetentzia espezifikoen ebaluazio-irizpideen arabera egingo da.

2.– Curriculum-elementuen antolaketa zenbait jakintzagai barne hartzen dituzten zeharkako eremu edo proiektu globalizataileen bidez egin bada, ebaluazioa modu integratuan egin badaiteke ere, kalifikazioa jakintzagaien arabera egingo da.

3.– Aurreko bi puntuetan adierazitako kasuetan, eremu edo proiektu horietan barne hartzen diren konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio-irizpideak definitu beharko dira, eta horiek izango dira ebaluazio eta kalifikaziorako erreferentzia. Irakasleei edo familiei ebaluazioaren emaitzari buruz helarazten zaien informazioan, eremuetan edo proiektuetan lortutako emaitzekin batera, erreferentzia hau jasoaraziko da: curriculum-elementuak zein jakintzagairen parte diren, edo zein arlo edo jakintzagaitatik hartu diren.

4.– Irakasle-taldeak, taldeko tutoreak koordinaturik, eta ikasturteko ebaluazio partzialetan hautemandako ikasteko prozesuaren bilakaera kontuan hartuta, azken ebaluazioa egingo du, eta bertan zehaztuko dira irakasleek lortutako ikaskuntzak eta konpetentzien garapen-maila.

5.– Lehenengo eta bigarren ikasturteak amaitzean, ikasturte amaierako ebaluazioaren konklusioen arabera, irakasle-taldeak ikasleen kalifikazioen ondorioak zehaztuko ditu, hau da, mailaz igarotzea eta titulazioa lortzea. Horretarako, irakasle-taldea osatuko dute kasuan kasuko irakasleei jakintzagaiak ematen dizkieten irakasleek, tutorea barne. Horretarako, amaierako ebaluazio-saio bat egingo da, ebaluazio partzialeko azken saioarekin batera egin ahal izango dena.

6.– Jakintzagairen batean ebaluazio positiboa lortu ez bada, ebaluazio positiborik izan ez duten jakintzagaien ohiz kanpoko azken ebaluazioa egingo da.

7.– Ebaluazio-aktetan jasotako ebaluazioaren emaitzak zerotik hamarrera bitarteko zenbakizko kalifikazioen bidez adieraziko dira, hamartarrik gabe, eta negatibotzat joko dira bostetik beherako kalifikazioak. Irakasleak ez badira aparteko probetara aurkezten, aurkeztu gabea jasoko da. (EA) .

8.– Bigarren mailako aktetan, gainera, aurreko ikasturtean gainditu gabeko ikasgaiak dituzten irakasleak agertuko dira, eta Batxilergoko titulua emateko proposamena jasoko da, etapako batez besteko notarekin batera. Ikasturte horretan, gainditu gabeko ikasgaien ebaluazio-aktak egingo dira, ohiko eskola-aldia eta aparteko probaren deialdia amaitzean.

30.– artikulua. Promozioa.

1.– Ikasleak Batxilergoko lehen mailatik bigarren mailara igaroko dira egindako jakintzagaiak gainditzen dituztenean edo gehienez ere bi jakintzagaitan ebaluazio negatiboa dutenean. Dena den, bigarren mailan lehen mailan gainditu ez dituzten jakintzagaien matrikula egin beharko dute, eta gainditu gabeko jakintzagaitzat joko dira. Ikastetxeek errekerazio-jarduerak eta gainditu gabeko jakintzagaien ebaluazioa antolatu beharko dituzte, hezkuntzan eskumena duen sailak ezartzen duten antolaketa-esparruan.

2.– IV. eranskinean adierazitako bigarren mailako jakintzagaiak gainditzeko ezinbestekoa izango da eranskin horretan adierazitako lehenengo mailako jakintzagaiak gainditzea, haien arteko jarraitutasuna dela-eta. Hala ere, modalitate beraren barruan, ikasleak bigarren mailako jakintzagaian matrikulatu ahal izango dira, lehenengo mailako dagokion jakintzagaia gainditu gabe, jakintzagai hori ematen duen irakasleak iritziz gero bigarren mailako jakintzagaia ongi jarraitzeko beharrezko baldintzak betetzen dituztela. Bestela, lehenengo mailako jakintzagaia ikasi beharko dute eta gainditu gabeko jakintzagaitzat joko da. Hala ere, jakintzagai hori ez da kontuan hartuko, bigarren mailara igarotzeko baldintzak aldatzeari dagokionez.

3.– Bigarren maila amaitzean jakintzagai batzuetan ebaluazio negatiboa duten ikasleek jakintzagai horietan matrikulatzeko aukera izango dute, gainditutako jakintzagaiak berriro ikasi beharrik izan gabe, edo, bestela, maila osoa errepikatzeko aukera izango dute.

4.– Batxilergoko lehen maila modalitate edo bide jakin batean egin duen ikasle batek bigarren mailara beste modalitate edo bide batean igaro nahi badu, titulua lortzeko, bi ikasturteetako irakasgai komunez eta hautazkoetz gain, modalitate edo bide berriko ikasgai espezifiko guztiak ikasi eta gainditu beharko ditu, 12, 13, 14 eta 17 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

31.– artikulua. Batxiler-titulua.

1.– Batxiler-titulua egiaztatzen du etaparako ezarritako helburuak lortu direla eta dagokion kompetentziak eskuratu direla.

2.– Batxiler-titulua lortzeko ebaluazio positiboa izan beharko da Batxilergoko bi mailetak jakintzagai guztietan.

3.– Salbuespen gisa, irakasle-taldeak erabaki ahal izango du jakintzagai guztiak, bat izan ezik, gainditu dituen ikasle batek Batxiler-titulua lortu duela, baldin eta, gainera, honako baldintza hauek guztiak betetzen badira:

a) Irakasle-taldeak uste izatea ikasleak titulu horri lotutako helburuak eta kompetentziak lortu dituela.

b) Ikasleak jakintzagaian behin eta berriz eta justifikaziorik gabe huts egin ez izana. Huts egite jarraitu eta justifikaziorik gabeko horren gehieneko iraupena ikastetxeak ezarritakoa izango da. Dena den, ezin izango da dagokion jakintzagaiaren ordu-kopuruaren % 20 baino handiagoa izan.

c) Ikaslea proba guztietara aurkeztu izana eta hura ebaluatzeko beharrezkoak diren jarduerak egin izana, ohiz kanpoko deialdikoak barne.

d) Etapako jakintzagai guztietan lortutako kalifikazioen batezbesteko aritmetikoa bost edo gehiago izatea. Kasu horretan, etaparen amaierako

kalifikazioa kalkulatzeko, gainditu gabeko jakintzagaian lortutako zenbakizko kalifikazioa hartuko da kontuan.

4.– Batxiler-titulua bakarra izango da, eta egindako modalitatea eta lortutako batez besteko kalifikazioa adierazita emango da. Horretarako, ikasitako jakintzagai guztien kalifikazioen batezbesteko aritmetikoa kalkulatu da, ehunenera biribilduta. Kalkulu hori egiteko, jakintzagai komunak eta aukerakoak, tituluari dagokion modalitatearen jakintzagai espezifikoak eta, hala badagokio, Erljioa jakintzagaia kontuan hartuko dira.

32.– artikulua. Batxiler-titulua beste irakaskuntza batzuetatik lortzea.

1.– Lanbide Heziketako teknikariaren titulua duten ikasleek Batxiler-titulua lortu ahal izango dute modalitate Orokorrean, baldin eta jakintzagai komunak gainditzen badituzte.

2.– Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikariaren titulua duten ikasleek Batxiler-titulua lortu ahal izango dute Arteen modalitatean, baldin eta jakintzagai komunak gainditzen badituzte.

3.– Halaber, Batxiler-titulua lortu ahal izango dute Arteen modalitatean, Musikako edo Dantzako lanbide-irakaskuntzak gainditu dituztenek, baldin eta, gainera, jakintzagai komunak gainditzen badituzte.

4.– Ikasle horien Batxiler-tituluan agertuko den kalifikazioa honako haztapan honetatik ondorioztatuko da: a) Batxilergoko jakintzagai komunetan lortutako kalifikazioen batezbestekoaren % 60; b) titulua lortzeko bidea ematen duten irakaskuntzetan lortutako batez besteko kalifikazioaren % 40, haiek antolatzeko hurrenez hurreneko errege-dekretuetan ezarritakoaren arabera kalkulatu.

33. artikulua. Ebaluazio-dokumentu ofizialak.

1.– Batxilergoko ebaluazio-dokumentu ofizialak hauek dira: ikasturte amaierako ebaluazio-aktak, espediente akademikoa, historia akademikoa, ikasturte bukaera eta etapa bukaerako banakako txostena eta, hala badagokio, lekualdaketei buruzko pertsonala.

2.– Historia akademikoa eta, hala badagokio, lekualdaketei buruzko txosten pertsonala oinarrizko dokumentutzat hartzen dira Estatuko lurralde osoan ikasleen mugikortasuna berma dadin.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoan, dokumentazio akademikoa eta ebaluaziokoa modu digitalizatuan bete eta jasoko da, hezkuntzaren arloko sail eskudunak zehazten dituen aplikazio informatikoen bidez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan adierazitakoaren arabera.

4.– Halakorik dagoen bitartean, paper-formatuko dokumentazio akademikoa eta ebaluazio-dokumentuak ikastetxeetan gordeko dira. Ikastetxe publikoren bat ixten bada edo itunpeko ikastetxe pribatu bateko jarduerak bertan behera geratzen badira, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzek finkatuko dituzte ikastetxe iraungiak sortutako dokumentazioa artxibatu eta zaintzeko gidalerroak.

5.– Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokio ebaluazio prozesu eta ebaluazio-dokumentuak betetzeko eta zaintzeko prozedura gainbegiratzea.

34.– artikulua. Irakatsi eta ikasteko prozesua eta Hezkuntzako Ikuskaritzako

ebaluazio-prozesuak gainbegiratzea.

1.– Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokio irakatsi eta ikasteko prozesuarekin zerikusia duten elementuak gainbegiratzea; horretarako, elementu horien plangintza, ezarpen eta ebaluazio egokiari erreparatuko zaio, bai ikasleen ebaluazioari dagokionez, bai irakaskuntza-ikaskuntzaren ebaluazioari dagokionez.

2.– Hezkuntzako Ikuskaritza, gainbegiratze-prozesuen barruan, aldian-aldian bilduko da ikastetxe bakoitzeko zuzendaritza-taldearekin eta koordinazio pedagogikoko taldeekin. Bilera horietan, ikasleen emaitza akademikoak (barnekoak zein kanpokoak) aztertu eta baloratuko dira, emaitzei buruzko gogoeta eta analisia sustatu eta bultzatuko da, eta hobekuntza-helburuen proposamena bultzatuko da –helburu horien jarraipena egingo da, laguntza-prozesuen bidez.

3.– Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokio ikastetxe publikoetan irakaskuntza-praktika nola egiten den ebaluatzea, betiere oinarrizko hezkuntza-arauan eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duena) ezarritakoaren arabera. Ebaluazio horren helburu nagusia izango da irakaskuntza-jardunaren kalitatea bermatzea eta haren hobekuntza profesionalerako eta ikasleen hezkuntza-emaitzen hobekuntzarako lagungarriak izango diren neurriei buruzko aholkuak ematea.

35.– artikulua. Ebaluazio objektiborako eskubidea eta ikasleentzako eta familientzako informazioa.

1.– Ebaluazio objektiborako eskubidea bermatze aldera, irakasleek emandako kalifikazioaren arrazoiak jakinaraziko dizkiete ikasleei eta familiei, eta lortu diren edo lortu ez diren eta kalifikazio hori eragin duten ebaluazio-irizpideak aipatuko dizkiete.

2.– Ikastetxeko aholkularitza- eta orientazio-taldeak tutorearekin kolaboratuko du, ikasleari eta haren gurasoei edo legezko tutoreei –batez ere ikaslea adingabea bada– beharrezko informazioa, orientazioa, aholkularitza eta laguntza emateko eta eskolatzeko aukerarik egokienei buruz orientatzeko, dauden baliabideen eta ikasleak onartzeko araudiaren esparruan.

3.– Familiek edo legezko tutoreek seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntza-prozesuaren bilakaeran parte hartu eta lagundu beharko dute, eta haien ebaluazioari, promozioari eta titulazioari buruzko erabakiak ezagutu beharko dituzte; gainera, ikastetxeek beren seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntza-aurrerapena errazteko hartzen dituzten laguntza- edo indartze-neurriekin kolaboratu beharko dute.

4.– Familiek beren seme-alaben hezkuntza-prozesuan parte hartzeko duten eskubidea eta betebeharra errazte aldera, ikastetxeak ikasleen eskola-bilakaeraren berri eman behar die familiei edo legezko tutoreei, batez ere ikasleak adingabeak direnean, txosten kualitatiboan bidez, banakako elkarrizketen bidez, bilera kolektiboan bidez eta egokitzat jotzen den beste edozein bitartekoren bidez. Edonola ere, hezkuntza-etaparen hasieran banakako elkarrizketa bat, ikasturtean zehar beste elkarrizketa indibidual bat eta ikasturte bakoitzaren hasieran bilera kolektibo bat bermatuko da, gutxienez.

36.– artikulua. Egiazkotasuna, segurtasuna eta konfidentzialtasuna.

1.– Ikasleen datu pertsonalak lortzeari dagokionez eta ikastetxe batzuek beste batzuei datu horien segurtasuna eta konfidentzialtasuna lagatzeari dagokionez, indarrean dagoen datu pertsonalak babesteari buruzko legerian xedatutakoari jarraituko zaio, baita, nolana ere, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita

hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoari ere.

2.– Ikaslearen espediente elektronikoak, gutxienez, ebaluazio-dokumentu ofizialetan jasotako datuak bilduko ditu, eta urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuan (Administrazio Elektronikoaren arloko Elkarreragingarritasunerako Eskema Nazionala arautzen duena) ezarritakoa beteko du.

37.– artikulua. Dokumentazioa zaintzea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan, 39/2015 Legean adierazitakoaren arabera, dokumentazio akademikoa modu digitalizatuan jasoko da, hezkuntzaren arloko sail eskudunak zehazten dituen aplikazio informatikoen bidez.

2.– Ebaluazio-dokumentuak ikastetxeetan gordeko dira, halakorik badago. Ikastetxe publikoren bat ixten bada edo itunpeko ikastetxe pribatu bateko jarduerak bertan behera geratzen badira, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzek finkatuko dituzte ikastetxe iraungiak sortutako dokumentazioa artxibatu eta zaintzeko gidalerroak.

3.– Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokio ebaluazio-dokumentuak betetzeko eta zaintzeko prozedura gainbegiratzea.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA. BATXILERGOKO IRAKASKUNTZAK ETA BESTE IRAKASKUNTZA BATZUK BATERAGARRI EGITEA.

1.– Hezkuntza-gaietan eskumena duen sailak aukera emango du Batxilergoko irakaskuntzak eta musikako eta dantzako arte-irakaskuntza profesionalak uztartzeko.

2.– Hezkuntzaren arloko sail eskudunak salbuespenezko eskolatzeko neurriak baimendu ditzake, errendimendu handiko kirol-jarduerak eta antzekoak egiten dituztenentzat.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. ERLIJOAREN IRAKASKUNTZA.

1.– Ikasturtea hasi baino lehen, adin nagusiko ikasleek eta adingabeen familiek edo legezko tutoreek Erljio ikasketak jaso nahi dituzten ala ez adieraziko dute.

2.– Ikastetxeak Erljioa eskainiko du bi mailetan, etapan 70 orduak errespeta daitezten. Ikasleek egingo dute ikasteko aukera, eta, ikaslea adingabea bada, familiek edo legezko tutoreek. Ikastetxeek antolaketa-neurriak hartuko dituzte erlijio-ikasketak egiten ez dituzten ikasleek behar den hezkuntza-arreta jaso dezaten. Horrek funtsezko kompetentzien garapena bultzatuko du, ikasleen heldutasun pertsonala, soziala eta emozionala lortzen lagunduko duten eta ikasleen autonomia, hausnarketa, erantzukizuna eta balio zibiko eta etikoak sustatuko dituzten komunitatearen zerbitzurako proiektuen bitartez. Erljioa ikasten ez duten ikasleen hezkuntza-arreta taldeko tutorearen esku egongo da, ahal izanez gero.

3.– Erljio katolikoaren irakaskuntza Egoitza Santuaren eta Espainiako Estatuaren artean sinatutako Irakaskuntza eta Kultura Gaiei buruzko Akordioan ezarritakoari lotuko zaio.

4.– Beste erlijio batzuen irakaskuntza lotuko zaio Espainiako Estatuaren eta Espainiako Erakunde Erljioso Ebanjelikoen Federazioaren, Espainiako Komunitate Israelarren Federazioaren eta Espainiako Batzorde Islamikoaren artean sinatutako kooperazio-akordioetan xedatutakoari, baita, hala badagokio, etorkizunean beste erlijio-konfesio batzuekin izenpetu daitezkeen akordioetan xedatutakoari ere.

5.– Erljioa jakintzagaiaren curriculumak zehaztea kasuan kasuko erlijio-agintaritzen

eskumena izango da. Testuliburuak eta material didaktikoak erabiltzeari buruzko erabakiak eta, hala badagokio, horiek gainbegiratu eta onartzeari buruzkoak kasuan kasuko erlijio-agintaritzei dagozkie, Espainiako Estatuarekin sinatutako Akordioetan ezarritakoaren arabera.

6.– Erlijio katolikoaren irakaskuntzen ebaluazioa etapako beste jakintzagaien baldintza eta ondorio berekin egingo da. Estatuarekin kooperazio-akordioak sinatu dituzten erlijio-konfesioen irakaskuntzaren ebaluazioa akordio horietan ezarritakoari lotuko zaio.

7.- Berdintasun-printzipioa eta lehia askea bermatze aldera, erlijio-irakaskuntzen ebaluazioan lortutako kalifikazioak ez dira zenbatuko espediente akademikoek lehian sartu behar duten deialdietan, ikasketetarako bekak eta laguntzak lortzeko deialdietan, ezta ikasleak onartzeko deialdietan, horien artean hautaketa bat egiteko.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. ATZERRIKO HIZKUNTZETAN EMANDAKO IRAKASKUNTZAK.

Curriculumeko jakintzagai batzuk atzerriko hizkuntzetan irakasteko baimena eskatu ahal izango da Hezkuntza arloan eskumena duen sailari, dekretu honetan araututako curriculumaren oinarritzko alderdiak aldatu gabe. Kasu horretan, ahaleginak egingo dituzte ikasleek bi mailetan jakintzagaien berezko terminologia atzerriko hizkuntzan eta erkidegoko hizkuntza ofizialean edo ofizialetan eskura dezaten.

Horretarako, ezin izango dira inola ere aldatu maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 86. artikuluan ikasleak onartzeko ezarritako irizpideak.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. HELDUEN HEZKUNTZA.

Helduentzako Batxilergoa egiten duten ikasleek titulua lortuko dute baldin eta Batxilergoko bi mailetako jakintzagai guztietan ebaluazio positiboa lortu badute, edo jakintzagai guztietan batean izan ezik, betiere honako baldintza hauek betetzen badira: a) irakasle-taldeak uste izatea ikasleak titulu horri lotutako helburuak eta konpetentziak lortu dituela; b) ikasleak jakintzagaia bertan behera utzi ez izana; c) ikaslea proba guztietara aurkeztu izana eta hura ebaluatzeko beharrezkoak diren jarduerak egin izana, ezohiko deialdikoak barne; d) etapako jakintzagai guztietan lortutako kalifikazioen batezbesteko aritmetikoa bost edo gehiago izatea.

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. BATXILERGOKO BESTE MODALITATE BATZUK LORTZEA.

Batxiler-titulua lortu dutenek beste edozein modalitate lortu ahal izango dute, baldin eta dekretu honetan aurreikusitakoaren arabera aukeratutako modalitaterako behar diren lehen eta bigarren mailako modalitateko jakintzagaiak gainditzen badituzte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

Indargabetuta geratzen da 127/2016 Dekretua, irailaren 6koa, Batxilergoko curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA. EZARPEN-EGUTEGIA

Dekretu honetan araututako irakaskuntzei dagozkien curriculumak 2023-2024 ikasturtean bukatuko dute beraien ezarpena.

Dekretu hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA. TUTORETZA.

1.– Batxilergoan modu progresiboan ezarriko da tutoretza, ikastetxeek irakaskuntza planifikatu ahal izan dezaten eta irakasle-taldea prestatu ahal izan dezaten. Ezarpena datorren 2022-2023 ikasturtean hasiko da, eta 2023-2024 ikasturtean iritsiko da ikastetxe guztietara.

2.– Tutoretza modurik onenean ezartzeko, Hezkuntza Sailak eskainiko dien prestakuntza egin beharko dute Batxilergoko irakasle guztiek.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA. INDARREAN JARTZEA.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko XXXXXaren XXa.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntzako sailburua.
JOKIN BILDARRATZ SORRON